

BEHARSAREA berriztatu egin dugu!!!

Beharsarea webgunea eguneratu egin dugu!!! Modu erraz batez, Barrikan, Gorkizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko tresna eraginkorra edozeinen esku dago. Webgunearen helburu nagusia eskualdeko euskarazko lanak bideratu eta, bide batez, lan alorrean euskararen erabilera sustatzea da.

Beharsareak bitartekari lana egiten du langile euskaldunak behar dituztenen eta lan horiek egin nahi dituzten herritarren artean. Bertara bidalitako iragarkiak argitaratzen ditu eta erabiltzaileen arteko harremana bideratzen du, besterik gabe. Ez du erabiltzaileen nortasuna egiaztatzen, eta ezin du bermatu erabiltzaileek emandako datuak egiazkoak direnik. **Beharsarea** ez da erabiltzaileek emandako informazioen erantzule izango, ez eta argitaratuko informazioak edo horren erabilerak ekar lezakeen edozelako kalteren inguruko inolako erantzukizunik hartuko ere.

Baldintza bi betetzea eskatzen zaio zerbitzu honen erabiltzaileari:

-) Lanak euskaraz egitea
-) Lanak baldintza duinetan egitea

Beharsarea zerbitzua erabiltzea doakoa da. Erabiltzaileak ez du erregistratu beharrik: e-posta helbidea ematea nahikoa da, erantzunak helbide horretan jasotzeko.

Lanak kategoriatan sailkatuta daude, baina lan mota guztiak bideratzeko balio du **Beharsareak**, lan partzialak zein lan profesionalak eskaini eta eskatu daitezke zerbitzu honen bidez.

<https://www.beharsarea.eus/uribe-kosta/hasiera/>

Ekimen hau Alkarbidek (Bizkaiko euskara teknikarien foroak, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe dagoenak) bideratu du, eta Bizkaiko beste herri batzuek ere **Beharsarea** ekimena sustatu dute.

